

# ELGERRA

**”Modelajearen zailtasunen artean zure egoera errespetatuko duen agentzia bat aurkitzea dago”**

**LIBE URKIXO  
MODELOA**





4

- 3 Eskola eraldatzen
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Lanbide heziketa
- 8 Jasangarritasuna
- 10 Sormena
- 12 Erreportajea
- 14 Denbora-pasak
- 16 Gure ikastetxea
- 18 Bitxikeriak
- 20 Musika



8



12

# aurkibidea

ELGERA 20. ZB maiatza

- 22 Elkarrizketa
- 24 Teknologia berriak
- 26 Bertsokak



20



22

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Botikazar BHI, Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kiriñño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B01eko eta B02ko Hizkuntza Normalizazio Ulibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.800. Webgunea: [www.elgeraldizkaria.wordpress.com](http://www.elgeraldizkaria.wordpress.com)

# GURE AMETSETAKO JOLASTOKIAREN BILA

**Kaixo Elgeratarrok, zer moduz oporrak?  
Gure jolastokiari buruz hitz egingo dugu!**

Urteetan gure patioa oso iluna, tristea, hotza eta hai-zetsua izan da. Gauza batzuk ezin dira aldatu, baina beste batzuk gure esku zeuden. Horregatik, joan zen ikasturtean irakasleek galdetu ziguten nolakoa izango zen gure ametsetako jolastokia. Eta talde bakoitzak bere ideiak eman zituen: rokodromoa, jolas ezberdinetako gunea, bankuak, bolen piztina, etab... Denak ezin izan dira aurrera eraman, baina irakasleen eta ikasleen elkarlanarekin kolorea eta alaitasuna ematea erabaki dugu.



## ERALDAKETAREN KRONOLOGIA

1. Lehen pausua: irakasleek horma bat zuriz margotu zuten eta guk grafitigile batekin hitz egin genuen grafitiak margotu ahal izateko.
2. Beste hormak eta zutabeak Arts saioetan ikasle guztiak Itsaso andereñoarekin margotu genituen.
3. Jolas ezberdinak erabiltzeko, frisbee, slak-line eta badminton guneak sortu genituen eta txandaka erabiltzen ditugu orain. Margotutako gorpilak jolastailu berriak sortu dira.
4. Jolastokian sortutako arazoak konpontzeko adostoki bat antolatu genuen denon artean haserreak bideratzeko.



Oraindik dena amaitzeko asko falta da baina datorren kurtsoan ilusioz beterik eta gogotsu jarraituko dugu.

Garrantzitsuena jolastokia margotzen primeran pasatzen dugula da. Artisten bizitza ez da hain gogorra!

## “ Modelajearen zailtasunen artean zure egoera errespetatuko duen agentzia bat aurkitzea dago ”



Naroa Márquez, Nahia Martín, Irati Arias eta Naroa Esturo (DBH 4)

### Zenbat urte daramatzazu industrian?

Industrian 2016an hasi nintzen, orduan bost urte. Baina, era professionalean, lau.

### Orain gutxi UNO Models-ekin duzu kontratua. Nolakoa izan orain arteko ibilbidea?

Historia luzea da. Industrian hasten zarenetik agentzia on batean hartzen zaituzten arte, denbora nahikotxo pasatzen da. 2016an hasi nintzen industrian sartzen interesa eta asmo handiagoarekin. Azkenean, bilatzea da kontua.

2017an Elite Model 'Look' programan sartu nintzen hasierako casting batean. Castinga

horrelakoa da: lehenik eta behin castinga pasatu beharko duzu, orduan semifinal batera iritsiko zara eta bukatzeko, finala ospatuko da Bartzelonan. Hiru egun edo egoten zara semifinaletan eta 'Modelo de España' titulua irabaz dezakezu. Pazientziatz baina urduri itxaron ondoren, lehenengo bost edo sei postuen artean amaitu nuen.

Orduan, oso txikia nintzen, hamazortzi urte ditut orain, baina, duela bost urte hamahiru nituen. Azkenean, kontratu bat sinatu nuen, baina jarraipeneko kontratua. Kontratu horrekin hazten ikusten zaituzte, modelo izate-

ko izan behar duzulako altuera bat, nik ez neukana. Zure fisikoaren garapena ere aztertzen dute urteetan zehar. Orduan aztertu ninduten.

Horrez gain, 2019an berriro deitu ninduten titulu berberera aurkezteko, 'Modelo de España' izateko. Bartzelonan egun batzuk igaro ondoren, bigarren aldiz ailegatu nintzen finalerdira. Gero, Bilbon hasi nintzen nire kabuz lan egiten. Markekin pilo bat lan egin nuen. Argazkilari askok begiz jo ninduten, esanez Madriler eta Bartzelonara joan beharko nintzatekeela. Orduan argazkiak bidali nituen UNO Models-era eta "etorri Madriler ikusi nahi zaitugu eta sinatuko dizugu kontratua" esanez deitu zidaten.

### **Modelajea, zaletasuna ala lanbidea da zuretzat?**

Ba, egia esan, pentsatu nuen gustatuko zitzaidala gustatzen zaidana baino gehiago. Azkenean, mundu horretara sartzen zara, eta oso zaila da. Oro har, jendeak modelaje industriako lana erraza dela pentsatu ohi du, baina uste baino zailagoa da! Egun asko egon behar zara bakarrik, asko bidaiatu. Hori gustatzen zaionarentzako, oso ondo, pertsona bakartia izanez gero, ez dago arazorik. Orduan, hobby eta lanbide gisa hartuko nitzuke, biak gustuko ditut.

### **Unibertsitatera joateko asmoa duzu?**

Bai, magisteritza ikasiko dut eta ez dauka batere zerikusirik modelajearekin. Zuen adinarekin pentsatzen nuen modelajea dena zela, supermodelo ez izanez gero, ezingo nintzatekeela beste ezer izan. Hasi ahala, mundura jaisten zara eta errealtatea ikusten duzu. Modelajearen zailtasunen artean, zure egoera errespetatuko duen agentzia bat aurkitzea dago. Nik oso argi esan nien ikasketak garrantzitsuena direla niretzat.

### **Zaila al da batxilergoa eta modelajea uztartzea?**

Ez, ezetz esaten dut modelajeak oso denbora gutxi kentzen didalako. Aurten hiru aste joan naiz kanpora Madriler eta gero Bartzelonara beste aste bat. Normalean, apunteak pasatzen dizkirate eguneratzeko.

### **Industriari dagokionez, ordezkaritza handia ala txikia ikusten duzu gorputz desberdinei eta gainerakoei dagokienez?**

Gero eta gehiago, baina benetako industrian ez. Benetako industria esaten dudanean moda super high-ari buruz ari naiz. Egunerokotasunean, agentzia batean ez dituzu iku-

siko Channelen edo, ateratzen diren gorputz motak. Gero, moda influentziera gehiago eramanda, sare sozialetara eramanda, badaude neurri handietako modeloak. Victoria Secreten jende nagusia sartu dute. Gero eta gehiago dago.

### **Deskribatu zure karrera orain arte hiru hitzetan.**

Berezia, polita eta zaila, dena aldi berean.

### **Zer esango zenieke modeloak izan nahi duten mutilei eta neskei?**

Gustatu behar zaiela, eta saiatzea dela kontua. Mundu honetan ez dago leku handirik, baina denontzako lana dago. Ez zara inorekin konparatu behar. Azken finean, munduan jende pilo dago eta guztiontzat dago lekua. Baina, garrantzitsuena ez konparatzea dela esango nuke. Niri noizbait esan didate argaldu behar naizela, baina argi utzi izan diet ez dudala "zentimetrorik galdu nahi". Agentziaren araberakoa da. Agentzia batzuk oso atseginak eta zintzoak dira, baina beste batzuk, aldiz, nahiko desatseginak. Bigarrenentzat, dirua irabazteko erreminta baino ez zara, eta pertsona zarela ahazten dute. Kontuan eduki behar da mundu honetan hasten zarenean beste industria guztietan bezala dela. Kritikoa izan behar zara eta zeure burua zaindu behar duzu.





Pandemia dela eta, zaletasun berriak kontuan harturik, nola konpontzen zarete lagun-sareak eta zer diozu txertoaz?



Irati Carrillo eta Valeria Martínez (DBH 4. maila)



**Iraia Alonso**

Ez dut zaletasun berri askorik, baina Youtubeko bideoak jarraitzen hasi naiz kirola egiteko. Lagunekin gauza berak egiten ditut, baina jende gutxiago elkartzen gara eta segurtasun-neurriak betetzen saiatzen gara. Nire ustez, txertoak derrigorrezkoa izan beharko luke pandemia berehala amaitzeko.



**David Vabuena**

Sormenarekin zerikusia duten zaletasunak interesatzen hasi zaizkit, edozein aplikaziorekin animazio motaren bat egiten dut. Lagunei dagokienez, niretzat egoera ez da ia aldatu, hiru lagunekin elkartzen naiz, murrizketak beteta. Txertoak lehen egiten genituen gauzak egin ahal izaten lagunduko digu.



**Irati Curto**

Kirol gehiago egiten hasi naiz eta etxean egin ahal diren kirolei buruz ikertu dut. Nire lagunekin orain lehen bezala elkartzen naiz, baina batzuk pandemia hau hobeto errespetatzen saiatzen dira. Txertoari dagokionez, nahiko motel ematen ari direlakoan nago, baina guztiok jarri behar dugu.



**Jon Barrondo**

Orain saskibaloian eta futbolean gehiago jolasten hasi naiz. Normalean, nire lagunekin elkartzen naizenean saskibaloian jolastera joaten gara eta hori pandemia baino lehen ez nuen egiten. Txertaketa, berriz, motelegi doa eta arinago joan beharko lukete, pandemia behingoz amaitu ahal izateko.



**Jugatx Cormenzana**

Interneten bidez egiten dudana kirol errutina bat lortu dut, eta gehiago margotzen hasi naiz. Lagunekin elkartzen naizenean, gehieneko kopuruko taldeetan banatzen gara murrizketak ondo betetzeko. Nire iritziz, txertoaren ordena ondo egiten ari da, halere, txerto kopurua urriegia da.



**Martin Barrondo**

Orain familiarekin mahai-jokoetan eta kartetan gehiago jokatzeko, eta xakea ere interesatzen hasi zait. Lagunekin gauza bera egiten dut, baina beti murrizketak kontuan hartuta nire senideak ez kutsatzeko. Gainera, nire ustez, txertoa mundu guztiak jarri beharko luke, pandemiak okerrera ez egiteko.



# Lanbide heziketa ikasten

**Itsaso Eguzkitza eta Joseba Lopategi Elorrieta – Errekamariko ikasleak dira. Ibilbide desberdina egin dute 2020-2021 ikasturte honetan Soldadura eta Galdaragintza teknikariak izateko ikasketak hasi aurretik.**



**Joseba, kontatu iezaguzu zein izan den zure ibilbidea Lanbide Heziketan hasi aurretik.**

J: 19 urterekin hasi nintzen lanean eta 20 urtez lan-tokiko lanak egin ondoren Lanbide Heziketan matrikulatu naiz. Edesan kooperatibista egon nintzen, eta bertatik Fagor Industrialen jarri gintuzten. Baina, Koronabirusak eragindako krisialdiaren ondorioz, uztailean, lanik gabe geratu nintzen.

**Krisiari aurre egiteko modua da formakuntza?**

J: Bai, zeharo. Lanbide Heziketan hasi ditut ikasketak lan egiteko aukera hobeen bila nabilelako. Lan munduan bertan konprobatu dut lan aukera gehiago daudela teknikari tituluarekin esku artean edukita; adibidez, enpresa gehienetan bazkide izateko baldintzetariko bat da. Hau zen unea.

**Urte asko pasatu dituzu ikastetxeetatik urrun. Nola sentitzen zara bueltan?**

J: Gaztetan ez nintzen ona izan ikasketekin eta horrenbeste denbora pasatu ondoren urduritasun horrekin hasi nituen ikasketak. Baina orain ikasten ikasi dut. Arduratsua naiz eta ondo antolatu dut nire burua. Klaseko delegatua ez ezik, ikastetxe osoko delegatua era banaiz. Dena den, ezin ukatu, tailerra faltan somatzen dut.

**Beraz, lan mundura itzuli nahi duzu?**

J: Tira, gogoz nabil hemen. Baina bai, ikasketak hauek amaitu eta lan mundura itzuliko naiz. Aukera izatekotan, datorren ikasturtean Duala egin nahi dut (ikastetxearen eta enpresaren artean partekatuta garatzen den ikaskuntza urtea da). Eta horrek bidea zabalduko diezadake datorren urtean bertan.

**Itsaso, zure abiapuntua beste bat izan da. Kontatu iezaguzu zure ibilbidea hemen hasi aurretik.**

I: Ni emakume gaztea naiz, baina jada 4 urteko neska baten ama naiz. Horrek nire ikasketen prozesua baldintzatu du orain arte eta gaur egun ere horrela jarraitzen du izaten. Gaztetan utzi nituen ikasketak baina azken urteotan berriz eutsi didoan erronka izan da: DBH-ko titulua lortu HHE zentro batean eta jarraian L.H. hasi nintzen.

**Nolakoak dira bizitza pribatua eta prestakuntza uztartzeko aukerak?**

I: Oso konplikatu da. Sarri ez naiz klasera etortzen. Ezin ditut alabaren zaintzarengatik huts egiteak justifikatu, eta hori kaltegarria izan daiteke nire eskola emaitzetan. Alaba zaintzeko ordutegian malgutasuna handiagoa eskertuko nuke. Pandemiak erakutsi digu online klaseak ere posibleak direla, agian klase batzuk modu birtualean jarraitzeko aukera ere aproposa izango litzateke.

**Eta, oztopo guztien gainera, hemen zaude. Zerk motibatu zintuen industria arloko ikasketak egitera?**

I: Alde batetik, mekanizazioa egin nuen osagarrizko formakuntzan eta gustuko izan nuen. Bestalde, ur-azpiko soldadura zuzenean ikusteko aukera izan nuen eta bertan konturatu nintzen neure bokazioa ofizio bihurtu nezakeela: ur azpian ibili eta soldadura.

**Emakume erreferente gutxi izango dituzu lan arlo honetan, ezta?**

I: Bai, horrela da. Abiapuntua bera ere ez da ona: neska bakarra naiz nire taldean. Baina hori ez da oztopo aurrera egiteko. Ez pentsa, hasieran erresistentzia batzuk izan nituen klasean, baina behin gaindituta, ez dago atzera egiterik.

**Joseba eta Itsaso, elkarrekin lan egiten duzue ikasgelako proiektu batzuetan, ezta?**

J: Bai, horrela da. Lan talde ona dugu. Leire bereziki ona da planoak egiten.

I: Marraztea gustuko dut, eta oso txukuna naiz.

**Unai, zuen irakasleak dio, balio erantsia eman diozuela taldeari...**

# Harrobian jasangarritasuna lantzen dugu

Eusko Jaurlaritzak jaulkitako 'Eskola Jasangarria' ziurtagiriaren jabe da Harrobia 2018ko maiatzetik eta, ildo horretan, gure heziketa zikloetan aurten zer ari garen egiten azalduko dizuegu.

## Unescoren Jasagarritasunerako Helburu Iraunkorrekina bat egiten dugu

Agenda 2030 egitasmoaren baitan, eta Ikasapresak horretarako abagune aparta eskaintzen duela aprobetxaturik, Marketin, Informatika, 3D eta Egokitze Fisikoko ikasleok garatzen ditugun enpresetan xede sozialak, ekonomia justuagoa, ekitatiboagoa eta solidarioagoa nola landu daitezkeen aztertuko dugu.

Kirol-animazioko ikasleok Azkorriko hondartzan uraren kalitatea aztertu dugu eta plastikoak jaso ditugu Azterkosta programarekin, 'basuraleza'-ri aurre eginez. Natur-ingurune zikloko Bizikleta moduluan, ezagutza teknikoekin batera, bere erabilera sustatzen da ikasleon artean. Gainera, Bilbotik irteerak ere egiten ditugunez, mugikortasunari dagokionez, hiria inklusiboa eta segurua den aztertzeko aukera dugu.

Azkenik, Informatika ikasleok Libera Makers lehiaketan parte hartuko dugu. SEO BirdLife-k eta Ecoembes-ek sustatzen duten Libera proiektuaren baitan, Lanbide Heziketara bideratutako lehiaketa sortu dute, non ikasleok prototipoak egin behar ditugun honako erronka hauei konponbidea emateko: naturan dauden hondakinak batzeko edo naturara hondakinik ez heltzeko.



## BirziklaON proiektuan parte hartzen dugu

Marketina, 3D eta Egokitze Fisikoko zikloen bitartez, Auzoko bihotz berdeen ingurumen- eta gizarte-hobekuntzarako eskolako Agenda 21en barruan eta Bilboko Udalaren kolaborazioarekin, ingurumena zaintzea helburua duen @BirziklaON proiektua jarri dugu martxan. Proiektu honek hiru helburu nagusi ditu: Bilboko gazteen artean kontsumo arduratsua sustatzea, norberaren ekintzen gaineko erantzukizuna ikusarazteko; hondakinak murriztea lortzea, hau da, hondakin gutxiago sortzea ingurumena-



ri eragiten dion onura ezagutaraztea; eta hondakinak sailkatzeko irizpideak argitzea, birziklajea hobetzea ezagutzaren eta esperimintazioaren bitartez.

Ziklo bakoitzaren barruan eta arlo bakoitzak ematen dituen baliabideak eta eza-gutzak kontuan izanik, ikasleok irakasleekin batera zenbait erronka egin ditugu. Marketin zikloaren kasuan, proiektuaren izena eta branding osoa sortu eta garatu dugu, merkatua eta kompetentzia ikertu, eta sare sozialen bitartez (TikTok eta Instagram)





hainbat Challenge zabaltzen ari gara. Challenge hauen artean, #24OrduPlastikorikGabe nabarmendu nahiko genuke: 24 orduz plastikorik ez erostea edota ez erabiltzea proposatu dugu, hau da, eguneroko jardueretan plastikozko hondakinak ez sortzen saiatzea, bai erosteko orduan, hamaiketakoan, meriendan... Eta esperientzia hori gure sareetan partekatzea bideo labur edo argazkien bitartez.

3D zikloan, berri, hondakinak murriztea, kontsumo arduratsua eta hondakinak sailkatzea hobeto egiten irakatsiko dugun bideo-joko dibertigarria garatzen ari gara mugikorretarako. Jolasaren ideaiaren diseinutik bere publikaziora arte dauden fase guztietan parte hartu dugu (bideo-jokoaren egitura pentsatu, grafikoak sortu, garapena eta funtzionalitatea) eta oso ikasketa interesagarria izaten ari da.

Azkenik, Egokitze Fisikoko zikloan, kirola eta birziklapena bateratzen dituen Spartan Race berezi bat antolatuko dugu maiatzean. Honetan, kirol froga zehatza sortzeko hondakinak berrerabiliko ditugu, inguruan dauden hondakinak eta zaborrak jasotzen eta sailkatzen ditugun bitartean. Ingurumena zaindu gure gorputza lantzen dugun bitartean, ba al dago plan hoberik?







# Internet Seguruaren Eguna

*Internet Seguruaren Eguna urtero ospatzen da munduan, urteko bigarren hilabeteko bigarren asteko bigarren egunean (aurten, otsailaren 9an). Botikazarreko ikasleok ere, estreinako, animatu gara zerbait antolatzera.*



Asier Barco Iñigo Zulueta

Guztiok erabiltzen dugu Internet egunerok: sare sozialak, mezu elektronikoa, bideoak, memeak, streamingak... Baina askok ez daki Internetek ekar ditzakeen arriskuak zeintzuk diren. Horrexegatik ospatzen da Internet Seguruaren Eguna urtero arriskuhorien gainean kontzientzia hartzeko. Botikazar institutuan ere egun hau ospatu nahi izan dugu, hainbat ekintza antolatuz.

Internet Seguruaren Eguna urtero ospatzen da munduan, urteko bigarren hilabeteko bigarren asteko bigarren egunean. Egun berezi honen helburua Interneten erabilera segurua aldarrikatzea eta haren arriskuez kontzientziaztea da. Aurtengo leloa 'Internet segurua zurekin hasten da: konektatuagoak, seguruagoak' izan da.

Botikazarren gai hau oso garrantzitsua eta interesgarria dela uste dugunez, lehenengo mailako IKT ikasgaiaren (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) ikasleok hainbat ekintza prestatu genituen beste ikasleentzat, segurtasunari buruz gehiago jakin zezaten. Egingdako ekintzen artean Kahoot lehiaketak eta ginkana bat antolatu genituen, ikasteko modu dibertigarriak eta elkarren eragileak baitira.

Kahoot aplikazioaren bidez, hainbat gaitako Trivial estiloko lehiaketak egin genituen, eta, jorratutako gaien artean, hauexek: sare sozialak, gurasoen kontrola, birus informatikoak edo nabigazio segurua. Ideia bat egingeko, nabigazio seguruaren harira, hurrengo galdera plazaratu genuen.

Ea ondo erantzuteko gai zareten! **“Interneten nabigatzean, zein da seguruagoa, http ala https?”**. Erantzun zuzena https da. Izan ere, azken ‘s’ horrek konexioa segurua dela adierazten du, eta horrela inork ezin du zure informazio pertsonala ulertu, zifratuta dago eta.

Ginkanan, berriz, institutuan zehar, nonahi (zuhaitzetan, lehioetan, aparkalekuan, Idazkaritzan...) QR kodeak itsatsi genituen pistekin eta galderekin. Ginkanaren gai nagusia pasahitzen kudeaketa izan zen. Ginkana zehar pasahitza seguruak sortzeko eta gordetzeko moduei buruz galdetzen genuen. **Bazenekien pasahitza on batek 8 eta 12 arteko karakterez (letra larriak zein xeheak, zenbakiak eta sinboloak) osatuta egon behar duela?**

Behin jokuak bukatuta, bai Kahoot lehiaketan zein Ginkanaren irabazleek 32GB-eko pendrive bana irabazi zuten.

Botikazarren Internet Seguruaren Eguna estreinakoz ospatu arren, jar-

duerak prestatu ditugunok zein haie-tan parte hartu duten ikasleak pozik daude. Izan ere, ikasleen %93k balorazio positiboa eman die prestatutako jarduerari, eta askok gauza berri ugari ikasi dutela adierazi dute egindako inkestan.

Gure ikastetxean, ziur aski, hurrengo urteetan ere egun berezi honen ospakizuna errepikatuko dugu, baina hobekuntza batzuekin. Besteak beste, Kahoot lehiaketetan zein Ginkanan azalpen eta informazio gehiago eman ahal izango genukeen. Gainera, beste jarduera motak ere prestatu ahal izango genituzkeen. Azkenik, denbora gehiagorekin ekintzen plan-gintza egin izan bagenu, hobeto antolatuko genituzkeen.

Internet seguruari buruz gehiago ikasteko hainbat baliabide hauexek aurki ditzakegu Interneten, hala nola: **www.osi.es** eta **www.is4k.es**. Bukatzeko, hemen duzue Internet Seguruaren Egunaren webgunera zaramatzen esteka: **www.saferinternetday.org**. Bota begirada bat, merezi du eta!



LETRA ZOPA

Hitz hauek aurkitu: BOTILA - SARDEXKA - MARRUBI - KROKODILO - ELUR - HILOBI

O	S	A	R	D	E	X	K	A
G	N	O	P	A	A	X	E	O
O	U	U	U	H	R	I	L	T
N	N	A	L	I	L	I	U	S
Z	I	L	A	L	D	B	R	I
T	A	I	T	O	H	U	K	B
A	R	T	K	B	O	R	A	E
P	R	O	A	I	T	R	U	L
A	R	B	A	S	K	A	R	E
K	B	U	R	U	A	M	X	T

SINONIMOAK EZKONDU

Sinonimoak lotu eta asmatu zein geratuko den bakar-bakarrik

EBAZPEN	ADIBIDEZ
GALARAZI	UGARI
TINKO	ARRASTO
ISURI	DEBAKATU
LEKUKOTASUN	TESTIGANTZA
AZTARNA	AURREKO
KASU	ERABAKI
FRANKO	IRMO
ARBASO	

HIZTEGI EROA

Hitz bakoitza bere esanahiarekin lotu

ZERGA	1. Sexurik ez omen daukan izakia.
DOMINA	2. Urrutitik hamalau daudela ematen duen fruitu mota.
GAZTA	3. Kirolari bati zerbait irabazi ostean ematen ohi zaion oroigarria.
AXUBETA	4. Esnea erabilita egiten den janaria.
EZTUL	5. Teorian, pentsatzeko daukagun gorputz-atala.
ZIKOINA	6. Bat-batean kirola egiten hasiz gero, giharretan sortzen zaigun mina.
BURU	7. Pertsona batzuei aurpegian ateratzen zaien ile multzoa.
AINGERU	8. Mafrundia dugunean bortizki botatzen dugun arnasa.
BIZAR	9. Estatuak hiritarrei ezartzen dien karga ekonomikoa
INTXAUR	10. Hanka luze-luzeak dituen hegazti migratzailea

# HITZ KATEA


Lerro batetik bestera  
 hizki bakar bat aldatuta,  
 lehen hitzetik  
 seigarrenera helduko  
 zara. Errazago iristeko,  
 laugarren lerroko  
 hitzaren sinonimoa duzu.

## 4. Eremu

E	R	D	I
A	S	T	O

5	3	7	
6	9	8	6
8		6	3
4		8	3
7			6
	6	4	1
		8	9
			2
			8
			5
			7
			9

Erantzunak 25. orrian



**KOMIKI TIRA**  
 Elina Urbizu (eskuman) Yun Galeano (behean)  
 Ibarrekolanda BHI

Skull Tango

BIZITZAKO PLAZERRAK ASKO DIRA...



ETA ENATEN BIZTEN EUFORIA BEZALA...



BEHINBATEKOAK DIRA.



# Zorionak Rekaldeberri!

**Kaixo, Elgeratar horiek! Aurten 50 urte betetzen ditut eta esku artean duzuen ale hau aprobetxatu nahi dut zuoi nire historia kontatzeko.**

Errekalde izeneko auzo oso gazte eta txiki batean jaio eta hazi nintzen. 70. hamarkada zen eta auzoko biztanleak langileak ziren. Argi zuten oso gogor egin behar zutela borroka ni eraikitzeko: auzoan ez zegoen institurik eta gazteek bizimodu duina aurrera atera ahal izateko, nire behar handia zuten. Urte oso latzak izan ziren eta auzoko jendea oso borrokalaria zen; pentsa: Errekalderen alde eskatzen zituzten erreibindikazioak biltzen zituen Liburu Beltza izeneko liburu bat sortu zuten!

Nire lehenengo kurtsoa 1970/71koa izan zen. Sortu nindutenean bi eraikin baino ez nituen: gaur bi eraikin horiek lotzen dituen erdiko blokea geroago egin zidaten. Batxilergoko 6 gela eta 236 ikasle neuzkan. Hemen zuoi, neskoj, eskatu behar dizuet

barkamena: ikasturte hartan nire ikasle guztiak gizonezkoak izan ziren.

1972/73ko ikasturtean emakumezkoak heldu zineten eta hezkuntza mixtoan lan egiten hasi ginen. Baina aldaketak ez ziren horretan bukatu: gero eta ikasle gehiago zetozen nigana, eta 1973. urtean gaueko klaseak ematen hasi nintzen, egunean zehar lan egiten zuten pertsonak ere bere ikasketak atera zituzten.

Gauzak horrela, txiki geratu nintzen momentu hartan nituen beharrizan guztietarako: handitu behar ninduten. Beraz, 1978an bi eraikinak elkarrrarazi zizkidaten ikasgela eta bulego berriak sortzeko. Orduantxe, eguneko eta gaueko txandetako ikasleez gain, INBADekoak ere bazeuden nirekin (badakizu, beren egoitza-ere-



Ander Lopez,  
Marta Perez eta  
Aitor Palacio  
(Batx. 2. maila)







● muan instituturik ez zuten ikasleen-tzako urrutiko Batxillergoa): guztira, 1.346 ikasle. Nola hartzen nuen, ba, nire barnean hainbeste lagun? Klaseetan 40/42 ikasle elkartzten ziren. Sinestezina gaur egun, ezta?

Garai hartan arau desberdinak nituen: ikasgeletan irakasleek erre zezaketen, ez zen beharrezkoa irakasleek jolastokia zaintzea, ikasleak nahi zutenean sartu eta atera ahal ziren, irakasleak ikasgelan sartzean ikasleak zutik jartzen ziren errespetua adierazteko, etab.. Gainera, irteerak eta ikasle-trukeak egiten genituen Ingalaterra eta Frantziarekin.

Urteak joan eta urteak etorri, 25. urteurrena heldu zen. Oso egun berezia izan zen; ospatzeko festa zoragarria antolatu zidaten: hitzaldiak, lehiaketak, dantzak, antzerkia, abestiak... Bazkari bat ere egin zuten irakasle eta ikasleek nire omenez.

Gizartea aldatu da eta horrekin batera irakaskuntza eta nire itxura eta

distribuzioa ere bai: klase barruko ikasleen kopurua murriztu da eta taldeak txikiagoak dira, gimnasio berria eraiki dute nire barnean, gaurko teknologiekin berriztatu naute (ordenagailuak, arbela digitalak, proiektoreak...), ortu bat eta oiolotoki bat eraiki didate eta, gainera, mozkin ekologikoak (arrautzak, barazkiak) saltzen ditut.

D eredia nagusitu denez, euskarak bere lekua hartu du eta beste leku askotako ikasleak gurera etortzea ere oso aberasgarria da.

Aurten Gela Egonkorreko ikasleak hartu ditut nire bihotzean. Izan ere, nire hormen artean lan egin eta ikasten duten ikasle, irakasle eta langile guztiak maite ditut eta oso harro nago haietaz.

Esan dizuedan bezala, aurten nire 50. urtebetetzea da. Zoritxarrez, ezin izango dugu nahi dugun moduan ospatu, baina horrek ez du inolaz ere nire poza ilunduko.

# Iragana gogoan, etorkizuna ahoan

Gerardorekin edurretan (1984-85)



Frantzia hizkuntza gutxituen legea onartua izan da eta Ipar Euskal Herriko haur guztiek eskubidea izango dute euskaraz ikasteko. Hegoaldean, gure gazteak eskubide horrekin jaio dira eta ez dira jabetzen hemen ere nolako apustuak, borrorak eta lanak beharrezkoak izan ziren eskubide hori lortzeko. Orduko garaiak ilustratzeko, hona hemen Deustuko Ikastolaren sustrai luzeetako historia.

Deustun, seme-alabek euskaraz ikas zezaten gurasoak 1963an 13 ikasleekin Azaola-Gereñotarren etxebizitzan eskolak ematen hasi ziren. Handik bi urtera Pedro deuneko lokal batera aldatu ziren eta handik gutxira haurtzaindegia zabaldu zuten San Felicisimon. 1969. urtean batu ziren proiektu biak San Felicisimon. 1976an lehenengo laguntza ofizialekin batera Salesianoetako eta La Salle ikastetxeko jolastokiak eta gela batzuk erabiltzen hasi ziren eta ikastetxeak Deustuko ikastola S. Coop izena hartu zuen. 1986. urtean gaurko eraikinera pasatu eta 1993-1994 ikasturtetik hona herri ikastetxe bilakatu da.

Estibalitz Lopez de Gereño Arrarte andereñoagaz





Jatorren afaria  
(1993)

Hasierako lekukoen testigantza bila Maria Jesus Gallastegi elkarrizketatu dugu, 1968. urtean Pedro deunaren elizako garaietan ikastolako guraso izan zena eta gaur egun, berriz, amama dena. Lehenengo garai horiek ekartzen ditu gogora:

“Zenbat oztopori aurre egin behar! Irakasle tituludunak ez euskaraz, lekurik ez, dirurik ez, ofizialtasuna lortu arte. Arangoitiko Banderas de Vizcaya-ra azterketak egitera joan behar izaten zuten ikasleek. Aita Mateorekin eduki genuen hartu-eman oso ona izan zen; euskalzalea zen eta gure alde agertu zen beti. Guraso denen inplikazioa handia izan zen: Pedro deuneko lokala konpondu, gelak egunero garbitu, arratsaldez liburua birziklatu, matematika klase partikularrak, domeketan mendira ikasleekin. Zenbat bilera ikastola berria behar zela eta!”

Libe Alonso ere, San Pedron hasi zen ikasle eta orduko garaiaz mintzo zaigu:

“Eleizak lokal bat utzi zigun eta han aritzen ginen adin guztietako ikasleak batera. Testuliburuak gaztelaniaz ziren baina saioak euskaraz. Irla bat ginen Deustun, ilegalak. ikuskaritzaren aurrean ‘Colegio de la Pasión del Señor’ izena erabiltzen genuen. 11 urte nituen Franko hil

zenez. Avenida del Ejército (gaur egun Lehendakari Agirre etorbidea) bizi ginen eta ikasleen manifestak eta borrokak leihotik ikusten genituen; gero, kanpoko atea zabaltzen genien gazteei grisengandik (Espainiako polizia) babesteko”

Eskola guztietan leku estrategiko bat jantokia da, “mens sana in corpore sano”, eta hasierako kooperatibatik gelditzen den ukitu nagusia sukaldearen kudeaketa da. Gaur egun ere, bazkaria bertan egiten da. Eukene Elorrieta eta Begoña Basaguren, oraingo eraikinean hasi ziren sukaldean lanean jantokia zabaldu zenean: 30 urte baino gehiago bertan, hasieran guraso moduan laguntzeko, gero lanbide bihurtu eta catering enpresa bateko langile izatetik enpresa sortzera heldu ziren Begoña eta Eukene. Ehun eta gutxi ikaslerekin hasi baziren ere, orain zazpiehun baino gehiago dira. Haiekin ibilitako Juanik lekukoa hartu eta horretan darrai.

Begoñaren arabera, jendeak gustura jaten zuen denetarikoa, batez ere: krocketak, enpanadillak... nagusia, patata tortilla. Eukeneren txokolatea oraindik gogoratzen dugu ikasleok. Horren sekretuaz galdetu diogu eta Valor tableta eta gosea baino ez dela behar dio:

“Sanoena beti txokolatea ogiarekin”

# GAZTIFY

Inork ez du zalantzan ipintzen gazteek musika asko entzuten dutela. Edonon ikusi ahal ditugu gazteak beren entzungailu eta sakelakoekin. Baina, non entzuten dute musika?

Gaur egun mota askotako aplikazio eta erreminta daude: kirola egiteko, jolasteko, mezuak bidaltzeko, musika en-tzuteko... adibidez, Spotify.

Spotify musika eta podcastak entzuteko erabiltzen da. Gaur egun 345 milioi lagunek erabiltzen dute, 35 milioi kanta eta 1,5 milioi podcast daude eskuragarri, eta 187 herrialdetan dago erabilgarri.

Spotify hiru modutan antolatzen da: playlistak, albumak eta artistak. Playlistek zure hainbat artistaren abesti gogokoenak elkarrekin izateko balio dute. Albumek abeslariak eta taldeak egindako diskoak biltzen dituzte karpeta moduko batzuetan.

## Nola jaio zen Spotify?

Spotify jatorriz suediarra da, eta Daniel Ek sortzailearen bi grinen batasunetik jaio zen: informatika eta musika. Martin Lorentzok dirua jarri ondoren, 2008ko urriaren 7an kaleratu zen. Hasieran, Europako herrialde batzuetarako besterik ez zegoen eskuragarri, ordenagailuz entzuteko aplikazio gisa. Baina, smarphoneak agertu zirenean aplikazio mugikorra sortu zuten erabiltzaileek beren smarphonean musika eraman ahal izateko. Spotify etengabe ari da gaurkotzen: 2019ko azaroaren 21ean Spotify Awards sarien lehen ekitaldia iragarri zuten Twitterren bidez. 2020ko martxoaren 9an plataformak Radar España jarri zuen abian, artista berrien programa.

## Spotify doan da... ala ez?

Spotifyk iragarkiekin lortzen du dirua artistei ordaintzeko; eta iragarkiak ikusi nahi ez badira, Premium kontu bat harpidetu behar da; hortik ere dirua lortzen dute. Artistek dituzten erreprodukzio kopuruaren arabera artistei kantitate bat ordaintzen diete. Guztira Spotifyren diru sarreraren %70 artistentzat da.

Spotify agertu baino lehen, musika zerbitzu guztiak ordainpekoak ziren. Ordaindu nahi ez zutenek beren kabuz deskargatzen zuten legez kanpoko web-guneetan. Spotifyri esker musika deskarga ilegalen kopurua jaitsi da, zerbitzu hori doan delako.



Iker Ameyugo,  
Nagore Llamazares eta Iñigo Martinez



Spotify, berez, doan da; baina, nahi baduzu, Premium kontua erosi ahal duzu. Munduan 155 milioi pertsonak Premium harpidetza ordaintzen dute. Doako eta Premium kontuen arteko aldeak hauexek dira:

#### Kontu arrunta (iragarkiak daude):

- Iragarkiak daude
- 6 aldiz saltatu ahal dituzu kantak
- Kalitate txikiko audioa
- Interneteko konexioa beharrezkoa da

#### Premium kontua(9,99€ hilean/ 4,99€ ikaslea bazara):

- Ez dago iragarkirik
- Nahi duzunean entzun ahal dituzu zure abestiak
- Kalitate handiko audioa (HQ)
- Interneteko konexiorik gabe erabili ahal da

#### Spotify eta euskara

Spotifyn musika hizkuntza askotan dago, baita euskaraz ere. Spotifyk euskaraz dauden kantei eta podcastei agerikotasun handiagoa ematen die. Adibidez, Gaztea Irratiak Spotifyn ere eskaintzen du bere edukia, bai podcastak, bai bere irratiko playlistak. Gaztea Irratiak, bestalde, hitzaldiak eta tailerrak ematen ditu institutuetan euskara eta musikari buruz. Gure institutura Oihan Vega etorri zen, tailerra egitera.

Spotifyn hainbat euskal kanta, playlist eta podcast aurki ditzakezu.

#### Hauexek dira gehien entzuten diren euskal abestiak:

1. Euritan Dantzan - Gatibu
2. Ilargia - Ken Zazpi
3. Gabak Zerueri Begire - Gatibu

#### Eta hauexek, berriz, gehien entzuten diren euskal artistak:

1. Gatibu
2. Ken Zazpi
3. Esne Beltza

#### Nola egin playlist bat?

Playlist bat egitea oso erraza da. Hasteko, playlista sortuko duzu, ondoren izen bat jarri, eta kantak sartuko dituzu. Nahi duzun ordenan ager litezke, (alfabetikoki, sartu dituzun azken abestiak lehenak aterazea, albumaren edo artisten arabera...).

Guk klasean egindako playlista entzun nahi baduzue hemen utziko dizuegu:



Ohian Vega Gaztea Irratiko hitzaldian



# Ikusmen urritasuna



Txurdinaga LHII ikastetxeko Gizarteratzeko lehenengo mailako ikasleak gara. Martxoaren 5ean, Begisare Elkartea ezagutzera joan ginen. Bertan Erretinosis Pigmentarioa pairatzen duten pertsonak egiten dute lan eta ondorengo elkarrizketa egiteko aukera izan genuen.

## Zer da Begisare?

Erretinako herentziako distrofiak eragindako gaixoen elkarte. Retina Bizkaia BEGISARE irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa sortu zen 2016an Bizkaiko kaltetuei zerbitzua eta laguntza emateko eta bere jarduera-eremuan Erretinosis Pigmentarioa ez ezik erretinako Distrofia Hereditario guztiak ere sartzan ditu.

## Zer da Erretinosis Pigmentarioa?

Erretinosis Pigmentarioa, gaixotasuna izateaz gain, begiari eragiten dioten gaixotasun degeneratibo eta hereditarioen multzoa da, ikusmenaren galera motel eta mailakakoan datzana.

## Zer da ikusmen baxua? Zerk esan nahi du legezko itsutasuna?

Ikusmen baxua da pertsona baten ikusmenaren murriztapena, zeina betaurrekoak erabiliz hobetzen ez

dena. Beste alde batetik, "legez itsutzat" hartzen da 0.1 baino ikuste-zorrotasun txikiago duen pertsona.

## Badago tratamendurik?

Ez, ez dago oraingoz inolako tratamendurik. Hala ere, asko lantzen ari da tratamendu-aukera desberdinak garatzeko ikerketa talde desberdinetan.

## Nolako zailtasun mota ekartzen ditu Retinosis Pigmentariak eguneroko bizitzan?

- Pertsonak ezagutarazteko.
- Garraioak erabiltzeko.
- Ingurunea antzemateko.

## Nola moldatzen du pertsonak bere bizitza diagnostikoa jaso eta gero?

Laguntza produktuekin moldatzen gara gure egunerokotasunean. Kasu honetan, ikusmenerako laguntza produktuekin. Laguntza produktuak erosteko optikak

merkeagoa egiten die baina ez dute diru-laguntzarik jasotzen laguntza produktueterako. Lupa bat ere erabiltzen dute ikusmenean laguntzeko.

### **Nolako beharrizan duzu kaletik joaten zarenean?**

Askotan oztopo arkitektoniko asko aurkitzen ditugu. Adibidez: Autobus geltokian, autobusen ordutegia kartela oso altua dago eta, egun eguzkitsua badago, ez dugu ezer ikusten. Bestetik, eraikin berriein, "Izozaki dorreak" adibidez, ez dira ondo bereizten jaisteko eskailerak eta eskudela farola batekin amaitzen da.

### **Zer egin dezakegu besteok gauzak errazteko edo laguntzeko?**

- Burua aurkeztu behar da
- Jakinarazi pertsona horri egingo diozuna
- Ez erabiltzea tokiko adberbioak

### **Nolako laguntzak jasotzen dituzue?**

Ez dugu laguntza askorik jasotzen. Optikara betaurreko berriak egitera joatean deskontu txiki bat egiten digute. Baina, ONCE elkartearen bazkide bagara bakarrik.

### **Zeren falta duzue? Uste duzu behar guztiak asetzen direla?**

Nire bizitzan falta handiena gidatzea da. Gidatzearen zale amorratua naiz, eta hori da gehien mindu ninduen gauzetako bat lehenago edo geroago utzi beharko nuela jakin nuenean.

### **Familiako kideek zer papera betetzen dute?**

Independenteak eta autonomoak dira beraien egunerokotasunean. Baita ere beraien familiak osatuta edo sortuta dute.

### **Zer-nolako profesionalek egiten dute lan elkarrean?**

Elkartearen ez dute profesionalik, lan guztia beraien (erabiltzaileek) burutzen dute. Baina ONCE-ren laguntza edo babesa dute (harreman kontaktuan).

### **Gaixotasun honek zure ikasketak oztopatu ditu?**

Ez, gaixotasun hau heldutasunean garatu zelako.

### **Zerbait egiteari utzi diozu gaixotasun honen erruz?**

Batek bankuan egiten zuen lan eta gaixotasunaren

ondorioz utzi egin behar izan zuen. Beste batzuek gaixotasunaren ondorioz festara joateari, gidatzeari, lan egiteari... utzi behar izan zioten.

***Elkarrizketarekin bukatzeko "tengo baja visión" deituriko bereizgarria zertan datzan azalduko dugu.***

Ikusmen gutxiko pertsona gisa ikusgarri egitea garrantzitsua eta beharrezkoa dela uste duen ikusmen-urritasuna duen pertsona ororentzat pentsatuta dago bereizgarria, geratzen zaion ikusmen-maila erabilgarria edo jatorrizko patologia edozein dela ere. Baita makilaren osagarri gisa erabili nahi dute-entzat ere, eta adierazi behar da ez direla guztizko itsuak.

***"Bereizgarriak eguneroko bizitzan laguntzen dit"***

Hitzaldia amaitu ondoren erabiltzaileen azalean jartzeko aukera izan genuen. Horretarako tailer batzuetan parte hartu genuen non errealitate birtualeko betaurreko batzuk probatzen aritu ginen. Errealitate birtual honek pertsona hauek jasotzen dituzten hainbat sintoma esperimintatzen ahalbidetu zigun.

Aldi berean, ikusteko zailtasunak dituzten pertsonak kaletik ibiltzeko erabiltzen duten makilarekin moldatzen ere ikasi genuen.



# Teknologia berrien galdetegia

**Kirikiño ikastolako DBH1 mailako Hedabide taldea gara eta teknologiaren erabilerrari buruzko inkesta bat zabaldu dugu ikastolatik. Gure helburua ikastolako ikasleen teknologiaren erabilera nolakoa den aztertzea da.**



DBH1eko  
Heda-  
dabide-  
etako  
ikasleak

Inkesta gure ikastolako 12 eta 18 urte bitarteko ikasle guztiei zabaldu zaie eta 259 ikaslek bete dute. Adin tarte hau aukeratu dugu teknologia gehien erabiltzen dutenak baitira.



Inkestatutakoen %61-ek hiru ordu baino gehiago ematen dituzte ikastolatik kanpo aparatu elektronikoekin. %20-ak bi eta hiru ordu artean, %15-ak ordu bat eta bi artean eta %1-ak ordu bat baino gutxiago. Esan beharra dago ikastolan gauden denbora gehiena ordenagailu baten aurrean pasatzen dugula. Horren ondorioz, esan dezakegu gure egunaren denbora gehiena aparatu elektronikoekin egoten garela.

Aparatu elektronikoen aurrean denbora larregi ematen dutela uste du inkestatutakoen %57-ak. Aparatu elektronikoei gure eguneroko bizitzako alderdi esanguratsu bat direla argi dago, baina, hain beharrezkoak dira? Hauen aurrean hainbeste denbora pasatzea ona al da? Gure ustez, aparatu elektronikoen menpe gaude, adikizio


moduko bat sortzen baitigute, eta hori gure egunerokotasunean eragina dauka.

Oraingo gazteak teknologiaren munduaren inguruan bizi dira eta errealitatea alde batera izten dute. Teknologiaz inguratuta bizi gara eta batzuek edozer gauza egiteko teknologia erabiltzen dute, adb: jateko, lokartzeko... Gainera, guraso batzuek umeen ohiuak eta negarrak galarazteko pantaila baten aurrean jartzen dituzte. Azkenean gaztea denbora guztia pantaila baten aurrean pasatzera ohitu egiten da eta mendekotasuna bat sortzen zaio.

Sare sozialei dagokienez, gure ikastolan gehien erabiltzen direnak WhatsApp, Youtube, Google, Instagram eta Tik-Tok dira. Baina denbora gehiena Tik-Tok eta Instagramen pasatzen dute. Sare sozial hauek pantailari itsatsita egoteko mekanismo batzuk dituzte eta hau argi eta garbi ikus daiteke gure ikastolan.







Ea sare sozialik gabe bizitza norabidea aldatuko zela uste zuten galdetu diegunean, %59-ak baietz esan du eta beste guztiek ezetz erantzun dute. Zergatik desberdinak ikusi ditugu eta esan beharra dago oso interesgarriak zirela. Batek horrelaxe zioen: "nire bizitzaren norabidea aldatu daitekeela uste dut, batzuetan sare sozialetako ideiak eta pentsatzeko moduak ikusten ditudanean, haien eragina sentitzen baitut".

Pertsonak sare sozialetan eta bizitza errealean ia pertsona berdina diren galdetu dugunean, %81-ak ezetz esan du. Hemen uzten dizkizuegu jaso ditugun erantzun batzuk: "jendeak besteek iku-

si nahi dutena bakarrik erakusten dutelako", "pantaila bati hitz egiteak boterea eta ausardia ematen digulako" edo "batzuek jarraitzaile gehiago lortzeko edozein gauza egiten dutelako".

Teknologia gure eguneroko bizitzan erabiltzeko tresna ona dela argi geratu da. Gainera, orain bizi garen egoeran oso lagungarria da denontzat. Baina uste dugu teknologiaren menpe bizi garela eta hori ez da ona ez guretzat ezta inorentzat ere gure bizitza erreala alde batera uzten dugulako. Inkesta honen bidez informazio baliagarria lortu izana espero dugu eta teknologiarekiko ditugun jarrerak kontuan izatea.

### SINONIMOAK EZKONDU

1. EBAZPEN - ERABAKI
2. GALARAZI - DEBEKATU
3. TINKO - IRMO
4. LEKUKOTASUN - TESTIGANTZA
5. AZTARNA - ARRASTO
6. KASU - ADIBIDEZ
7. FRANKO - UGARI
8. ARBASO - AURREKO
9. ISURI

### HITZ KATEA

1. ERDI
2. ARDI
3. ARDO
4. ARLO
5. ARTO
6. ASTO
- 7.

### HIZTEGI EROA

1. AINGERU
2. INTXAUR
3. DOMINA
4. GAZTA
5. BURU
6. AXUBETA
7. BIZAR
8. EZTUL
9. ZERGA
10. ZIKOINA



### LETRA ZOPA



# 2020 URTAROZ URTARO, BERTSOZ BERTSO



## 2020

Martxoak 12 osteguna  
mundua etxera joan zen  
COVID, Black lives matter edo Beirut  
zer ez ote zen gertatzen?  
Bi mila ta hogeiak erakutsi  
digu gauzak baloratzen

**FALTA DIRENAK FALTAN BOTATZEN,  
MAITE DIRENAK MAITATZEN**

## UDAZKENA

Amaitu da beroa ta hotza  
Ailegatu da, ze pena!  
Euria ta loreak jausita  
Lurrean hostoa dena  
Ikasturtea hasita berriz  
Tristeza da astelehena

**EURIEKIN TA LIBURUEKIN  
ETORRI DA UDAZKENA**



## UDABERRIA


Martxoa amaieran, maiatzean  
Horrenbeste azterketa  
Euri zaparrada asko eta  
Beti eskuan txaketa  
Gero eguzkia aterata  
Zerua ostadarrez beteta

**UDABERRIA DA NEGUA TA  
UDAN ARTEKO NA(HA)SKETA**

## NEGUA

Gabon egunetan handitzen da  
senideen oroimena  
neguan zuhaitzak biluztu ta  
hostoentzat atsedena  
alea zuri, berogailua  
dugu lagunik onena.


**URTAROEN ARTEAN HOTZENA  
BILBO ZURITZEN DUENA**



## UDA

Uda giroko arrats ta gauzez  
Egoten gara kalean  
Gatibu entzuten festan edo  
Hondartzetako harean  
Gurasoekin bidaia asko  
Ez gaude gelditxean  
**BIZIAGO SENTITZEN GARA GU  
UDA IRISTEN DENEAN**





# 2021 EuskarAbentura

## espedizioa



Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nahiz diasporako 16-17 urte bitarteko 120 neska-mutil **euskal geografia, kultura eta historia** lagunartean ezagutzera eramango dituen oinezko espedizioa da EuskarAbentura.

Done Jakue bide ezberdinak jarraituz, Euskal Herria luze-zabal zeharkatuko dute, **Maulen hasi eta Getxo helmuga hartuta**. Hiriburu guztiak ez ezik, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako guneak bisitatuko dituzte; bai eta basoak, hondartzak, museoak, gari-soroak, leizeak, portuak, gazteluak, belazeak, monumentu nahiz eraikin enblematikoak, herriak, gatzagak, baserriak...

**Era eta eduki anitzeko mintegi, tailer eta ekimenek aberastuko dute abentura**. Izan ere, hainbat esparrutako profesionalak (musikariak, soziolinguistak, aktoreak, bertsolariak, kazetariak, dantzariak, idazleak, kirolariak...) aldiro-aldiro batuko dira espediziora gazteekin ordu batzuk konpartitu eta askotariko jakintzak elkar trukatzeko.

Aurtengo espedizioak kanpaldi formatua izango du, bi txandatan banatuko da eta txanda bakoitza bi kanpamentu basetan kokatuko da, haietako bakoitza lurralde ezberdin batean.

Informazio gehiagorako: <https://euskarabentura.eus/>

